



DONOSTIAKO

EUSKAL INDAR-NEURTZEETAN

EGINTZA

EUSKAL-itz jostaldien Batzarrea dator gaur kontu ematera leku ontan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakua dan aurten izkribatzalleen indar-neurtzeetan, batzar epalle be-reziak erabaki duben sari emaldia.

Aurtea aundiz ikusi ondorean aurkestu diran moldaera guziak, batzarreak erabaki du era ontan:

Lenbiziko zatian irabazi du *saria* Amador Ayerbe ta Iturrioz jaunak, «Zorioneko gaua» izena dun kontucho apain ta egoki idatzitakoa gatik.

Aldeera irabazi du Pedro Migel Urruzuno jaunak, «Praisko-Arro»-ren izenarekin azaldu dun kontu alai ta jostallua gatik.

Bigarren zatian irabazi du *saria* Jose Elizondo jaunak, «Nere gogua» izendatutako neurtitz samur ta gogotzua gatik.

Aldeera irabazi du Manuel Lekuona Echabeguren jaunak, «Euskal-erriko sinismena» izentzat duben neurtitz pizkor ta sutsua gatik.

Bezte *aldeera* bat Pedro Enbeita Renteria jaunak, «Baztan-go uyolde nagusiyari» izentzat daukan neurtitz ederragatik.

Bezte *aldeera* Amador Ayerbe 'ta Iturrioz jaunari, «Neurtitzlaria gezur zalia» izendatutako neurtitz jostallua gatik.

Aipamen onragarria Jose Inazio Garmendia jaunari, «¡Gora ta gora!» izendatutako neurtitz apañagatik.

Bezte *aipamen onragarria* Kayetano S. Irure jaunari «Bizi bedieuskera» izentzat duben neurtitz egokia gatik.

Irugarren zatian irabazi du *aipamen onragarria* Jose Inazio Garmendia jaunak, «Pakearen ongiteak» izena dun lan egokia gatik.

Laugarren zatian irabazi du *saria* Jose Inazio Garmendia jaunak, «Abere mesedegarriak» izentzat dula, azaldu dun lan jatorra gatik.

Aldeera Felipe Ayerbe jaunak, «Aberea maite duna gizon zentzunduna» izendatutako lan egokia gatik.

Donostian 1915^{-ko} Abendua'ren 21^{-an}.

TORIBIO ALZAGA

Goarpelaria.

ADRIAN LOYARTE

Batzar-burua.

